# Beste zenbait Iragarpen Ofizial
# Otros Anuncios Oficiales

**LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

IRAGARPENA, Gizarte Ongizate Zuzendaritzarena, Portugaleteko «Manuel Calvo» eta Donostia-San Sebastiángo «Goyeneche» Ongintza Iraskunde Partikularren estatutuak eta xedeak aldatzeko espedienteari buruzkoa. 2154

**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**

IRAGARPENA, Aretxabaletako Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 13C eta 13D eskualdeetako Alde batzuk Eraberritzearen espedientearekiko hartu den akordioari buruzkoa. (Hutsen zuzenketa). 2155

**DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL**

ANUNCIO de la Dirección de Bienestar Social, relativo al expediente de modificación de fines y estatutos de las Fundaciones Benéfico-Particulares «Goyeneche» de Donostia-San Sebastián y «Manuel Calvo» de Portugalete. 2154

**DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA**

ANUNCIO relativo a acuerdo adoptado en el expediente de Reforma Puntual de las Normas Subsidiarias de Planeamiento de Aretxabaleta para las zonas 13C y 13D. (Corrección de errores). 2155

# Partikularren Iragarpenak
# Anuncios Particulares

**GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA**

IRAGARPENA, Ezarleen izenean Kontseilari Orokor Titularrak eta Ordezkoak hautatzeko Konpromisariei deia egiteari buruzkoa. 2155

**CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIAN**

ANUNCIO relativo a la convocatoria de los Compromisarios para la elección de Consejeros Generales Titulares y Suplentes en representación de los Impositores. 2155

# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## OSASUN SAILA

**783**

AGINDUA, 1992ko martxoaren 10ekoa, Osasun Sailburuarena, Euskal Autonomi Elkarteko Organu Aldaketen Koordinazio-Ekipoa antolatzeko dena.

Organuak eta ehunak ateratze eta aldatze ihardunek, osasun eta sozial mailan duten onurakortasunak eta ekintza horiek Euskal Autonomi Elkartean hartzen ari diren geroz eta gehiagoko onarpneak, ekintza horiek garatzea eta koordinatzea eskatzen dute behar den bezalako eraketa jarriz. Euskal Autonomi Elkartean ihardun horiek egiteko kreditapena duten zentru publikoek eta pribatuek gauzatzen dituzten ekintzek ondorio onak eman ditzaten lortu behar da antolakuntza horren bidez.

Deskribatu den helburu horrek eskatzen duenaren arabera, Euskal Autonomi Elkarteko Aldaketetarako Koordinazio Ekipoaren antolakuntza arautzen da Agindu honen bidez. Erakundeko langile kualifikatuek osatuko dute Ekipo hori eta honako era honetan antolatuko da langile horien zerbitzua: Osasun Sorospenetarako Zuzendaritzak, ihardun horiek behar bezala garatzeko bere baitan daramatzaten kudeaketa lanak koordinatuko ditu, zentru publikoetan egiten diren kenketa eta aldaketa ihardunei dagozkienetan Osasun Alorreta-

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

**783**

ORDEN de 10 de marzo de 1992, del Consejero de Sanidad, por la que se organiza el Equipo de Coordinación de Trasplantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La utilidad sanitaria y social de las actividades de extración y trasplante de órganos y tejidos, así como el creciente desarrollo de las mismas en el ámbito de la Comunidad Autónoma, aconsejan su promoción y coordinación mediante el adecuado dispositivo de organización, que posibilite el buen término de cuantas actuaciones se producen en este campo, por los distintos centros públicos y privados acreditados en la Comunidad Autónoma para la práctica de estas actividades.

De acuerdo con el objeto descrito, la presente Orden regula la organización denominada Equipo de Coordinación de Trasplantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, integrado por personal cualificado del Organismo cuyos servicios se reestructuran de modo que desde la Dirección de Asistencia Sanitaria se coordinen el complejo de gestiones públicas que conlleva el correcto desarrollo de las actividades de referencia, sin perjuicio de la dirección del dispositivo asistencial que compete a las Direcciones de las Areas

ko Zuzendaritzek dituzten sorospen-ekintzen kaltetan gabe.

Euskal Autonomi Elkartean kreditapena duten zentruetan egiten diren organu eta ehun emanketa, kenketa, aldaketa-ihardun guztiak ezagutze, gainbegiratze, sustatze eta koordinatze lan guztien langile arduradunen arteko mekanismo iraunkorra finkatzea da nahi dena. Era honetan, ekintza horiek ahal den onduen burutu daitezela lortu behar da, prozesu hauetan parte hartzen duten langile fakultatiboen erantzukizuna alde batera utzi gabe, indarrean egon dauden lege berezietan ezartzen denaren arabera.

Horiek horrela, uztailaren 23ko 439/91 Dekretuan eta apirilaren 9ko 234/91 Dekretuan jasotzen diren xedapenez baliatuz, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*– Organu eta ehunak atera eta aldatze ihardunak egin ahal izateko, osasun zentruak kreditatzeari buruzko 1990ko urriaren 16ko Aginduan ezartzen denaren arabera Euskal Autonomi Elkartean kreditatuta dauden zentruetan egin daitezen organu eta ehun emanketa, ateraketa eta aldaketarako ihardun guztiak koordinatuko ditu Osakidetzako Osasun Soropeneterako Zuzendaritzak.

*2. atala.*– Helburu hauek lortu ahal izateko, Euskal Autonomi Elkarteko eremua hartuko duen Organu Aldaketen Koordinatzaile Orokor bat egongo da, Osakidetzari atxikitakoa, lan hori bakarrik egingo duena eta beti gertu egongo dena.

*3. atala.*– Honako hauek izango dira Organu Aldaketen Koordinatzaile Orokorraren egitekoak:

a) Organuak eta ehunak atera eta/edo aldatzeko kreditapena izan eta Euskal Autonomi Elkartean dauden zentru guztiek, elkarren artean eta Osakidetzarekin, elkarteko eta elkartez kanpoko erakundeekin etengabeko harremanak izan ditzaten laguntzea eta bultzatzea.

b) Organu eta ehunen emanketa, ateraketa eta aldaketa lanetan sartuta dauden zerbitzuen eta ekipo profesionalen ihardunak koordinatzea.

c) Organuak eta ehunak zentru batetik bestera eramateko logistika eskaintzea, garraiorako arau teknikoak eta protokoloak landuz, moeten arabera; erakunde ofizialekin, boluntarioekin edo ongintza-erakundeekin itune iraunkorrak eginez, era honetan, kenketa ekipoen toki aldaketetan eta organuak garraiatze lanetan lagundu ahal izateko, garraioa hegazkinez egin behar denean bereziki. Eta oro har, kenketa-garraio eta organuak eta/edo ehunak jartze-prozesuetan parte hartzen duten pertsonek, armonikoki eta denbora gutxi galduz funtziona dezaten.

d) Autonomi, eskualde, nazio edo nazioarte mailakoak izan eta erakundeekin elkarlana egiteko eta organuak trukatzeko arloei dagozkienetan eta erakunde horien antzekoak diren beste erakunde batzurekin harreman iraunkorrak izateari dagozkionetan, osasun agintariei aholkuak ematea.

e) Biztanlegoaren eta osasunketako langileen artean, emanketak egiteko kanpainak programatzeari eta garatzeari eta organuen eta tejiduen aldaketa-arloan gauzatu diren ihardunen analisiari eta ikerketei dagozkienetan, osasun agintariekin batera lan egitea.

Sanitarias para las actividades de extracción y trasplante que se despliegan en los centros de la red pública.

Se pretende, en definitiva, instaurar un mecanismo permanente de relaciones entre el personal responsable de las funciones de conocimiento, supervisión, promoción y coordinación de las actividades de donación, extracción, trasplante y disponibilidad de órganos y tejidos en todos los centros acreditados de la Comunidad Autónoma, posibilitando la garantía de su más óptimo desarrollo, a salvo siempre de la responsabilidad propia del personal facultativo que interviene en todos estos procesos, de acuerdo con la legislación especial que se encuentra vigente.

Por todo ello, en ejercicio de las habilitaciones contenidas en los Decretos 439/91, de 23 de julio, y 234/91, de 9 de abril,

DISPONGO:

*Artículo 1.*– La Dirección de Asistencia Sanitaria del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, coordinará todas las actividades relacionadas con la donación, extracción y trasplante de órganos y tejidos que se realicen en los centros acreditados de la Comunidad Autónoma del País Vasco, conforme a la Orden de 16 de octubre de 1990, sobre acreditación de centros sanitarios para la práctica de actividades de extracción y trasplante de órganos y tejidos.

*Artículo 2.*– Para la consecución de estos objetivos y adscrito a la Dirección de Asistencia Sanitaria del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, existirá un responsable Coordinador General de Trasplante de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con dedicación exclusiva y disponibilidad permanente.

*Artículo 3.*– Serán funciones del Coordinador General de Trasplante, las siguientes:

a) Propiciar y servir a la relación permanente de todos los centros acreditados para la extración y/o trasplante de órganos y tejidos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre sí y con el Departamento de Sanidad y el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, así como con las estructuras comunitarias o supracomunitarias relacionadas con el trasplante.

b) Coordinar las actividades de los diferentes servicios y equipos profesionales implicados en las donaciones, extracciones y trasplantes de órganos y tejidos.

c) Facilitar la logística del traslado de órganos y tejidos de un centro a otro, eleborando normas técnicas y protocolos de transporte, según los diversos tipos, buscando acuerdos estables con organismos oficiales, de voluntariado o benéficos para cooperar en el desplazamiento de equipos extractores y traslado de órganos, especialmente cuando se precise transporte aéreo, y, en general, posibilitar el funcionamiento armónico y económico en tiempo de las personas que participen en el proceso de extracción-transporte e implantación de órganos y/o tejidos.

d) Asesorar a las autoridades sanitarias en los temas relativos a la cooperación e intercambio de órganos con otras organizaciones autonómicas, regionales, nacionales o internacionales que se suscriban y en el desarrollo de relaciones estables con organizaciones semejantes de los mismos.

e) Colaborar con las autoridades sanitarias en la programación y desarrollo de campañas de promoción de la donación entre la población y el personal sanitario, en el análisis y estudio de la actividad desarrollada en el campo del trasplante de órganos y tejidos.

f) Zain daudenen zerrendak gertatzea, horien ikuskaketa egitea eta txosten teknikoak lantzea.

g) Organuak eta tejiduak kentzeko eta aldatzeko kreditapena duten zentruetako zuzendaritza-taldeei aholkuak ematea, lan horietan sartuta dauden talde profesionalen barne-antolaketari dagozkionetan.

h) Kreditapena duten zentruetako Aldaketa eta Mortalitate mailako Ospitale barneko Komiteei aholkuak ematea, era honetan, agiango emaileak ugaritu ahal izateko.

i) Euskal Autonomi Elkartean egiten diren emanketa, ateraketa eta aldaketei buruzko ihardun-txostenak lantzea eta horien ebaluaketa egitea.

j) Aldaketek dituzten alde guztiei buruzko ikerketak eta analisiak egiten osasun agintariekin batera lan egitea eta ihardun honetan sartuta dauden profesionalen etengabeko trebakuntza eta birgaiketa antolatzen agintariei laguntzea.

k) Organuak emate, kentze, garraiatze eta aldatze lanekin lotura duten eta eman dakizkioten beste egiteko batzuk.

*4. atala.*– Ihardun hau behar den bezala bultzatu eta garatu ahal izateko eta Aldaketetarako Koordinatzaile Nagusiaren agintaritza funtzionalpean, Euskal Autonomi Elkarteko Aldaketen Koordinakuntzarako Taldea sortzen da. Honako hauek osatuko dute:

Aldaketetarako Koordinatzaile Nagusia.

Aldaketetarako Lurralde Koordinatzaileak:
- Arabako Alorraren Lurralde Koordinatzailea.
- Gipuzkoako Alorraren Lurralde Koordinatzailea.
- Bizkaiko Alorraren Lurralde Koordinatzailea.

Ospitale barneko Koordinatzaileak:
- Giltzurrun Aldaketarako Kreditapendun Zentruko Ospitalez kanpoko Koordinatzailea.
- Kreditapendun Kenketa-Zentruetako Ospitalez kanpoko Koordinatzailea.

*5. atala.*– Honako egiteko hauek garatuko dituzte Organu Aldaketen Koordinakuntzarako Taldeko Lurralde Koordinatzaileek:

a) Koordinatzaile Nagusiarekin elkarlana egitea, arauak eta agiriak egokitu ahal izateko.

b) Ekintzetarako protokoloak lantzea.

c) Kenketa-aldaketa ekipoak egituratu ahal izateko, zentruko arduradunei argibideak ematea.

d) Organuak eta ehunak ematea sustatzeko diren ekintzetan elkarlana egitea eta ekintza horiek bere eremu barruan sustatzea, bai gizarte mailan eta ihardun honekin lotura duten sendagile eta ezsendagile profesionalekin.

e) Osasun Alorreko zentru bakoitzean, organuak eta ehunak ateratzeko baloraketa ekonomikoaren ikerketak egitea eta bai ordezko tratamenduen gastuei buruzkoak ere.

f) Bere eremu barruan egin daitezkeen kenketa eta aldaketa prozesuei buruzko ihardun eta ebaluaketari buruzko txostenak lantzea.

g) Bere Alorrean aldaketa egiteko zain daudenen zerrendak gainbegiratzea.

h) Bere Alorreko zentru bakoitzean egon daitezkeen agiango emaileen/benetako emaileen zerrendaren baloraleta egitea.

f) Inspeccionar y elaborar informes técnicos correspondientes en relación con la confección de listas de espera.

g) Asesorar a los equipos directivos de los centros acreditados para extracción y trasplante de órganos y tejidos en la organización interna de los equipos profesionales implicados en esta actividad.

h) Asesorar a los Comités Intrahospitalarios de Trasplante y de Mortalidad de los centros acreditados, con vistas a obtener un incremento de donantes potenciales.

i) Elaborar informes de actividad y evaluación sobre donaciones, extracciones y trasplantes en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

j) Colaborar con las autoridades sanitarias en el estudio y análisis de todas las facetas relacionadas con el trasplante, así como en la organización de la formación continuada y reciclaje de los profesionales implicados en esta actividad.

k) Aquellas otras funciones relacionadas con las actividades de donación, extracción, transporte y trasplante de órganos y tejidos que se le encomienden.

*Artículo 4.*– Para el correcto impulso y desarrollo de esta actividad, y bajo la dependencia funcional del Coordinador General de Trasplante, se forma el Equipo de Coordinación de Trasplantes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, compuesto por:

Coordinador General de Trasplante.

Coordinadores Territoriales de Trasplante:
- Coordinador Territorial Area de Alava.
- Coordinador Territorial Area de Gipuzkoa.
- Coordinador Territorial Area de Bizkaia.

Coordinadores Intrahospitalarios:
- Coordinador Intrahospitalario del Centro Acreditado de Trasplante Renal.
- Coordinadores Intrahospitalarios de Centros Extractores Acreditados.

*Artículo 5.*– Las funciones a desarrollar por los Coordinadores Territoriales del Equipo de Coordinación de Trasplantes serán las siguientes:

a) Colaborar con el Coordinador General en la adecuación normativa y documental.

b) Elaborar los protocolos de actuación operativa.

c) Orientar a los responsables de centro para la estructuración de los equipos de extracción-trasplante.

d) Colaborar y desarrollar en su ámbito territorial las actividades encaminadas a la promoción de la donación de órganos y tejidos, tanto a nivel social como de los profesionales sanitarios y no sanitarios relacionados con esta actividad.

e) Estudiar la valoración económica de la extracción de órganos y tejidos en cada uno de los centros del Area Sanitaria, así como de la repercusión económica de los tratamientos sustitutivos.

f) Elaborar informes de actividad y evaluación sobre los procesos de extracción y trasplante que se realicen en los centros de su ámbito.

g) Supervisar las listas de espera de trasplante de su Area.

h) Valorar la relación donante potencial/donante real en cada centro de su Area.

i) Bere Alorreko ekintza bakoitzerako logistika operatiboa antolatzea, nahiz ospitale barrukoa izan, nahiz kanpokoa.

j) Koordinatzaile Nagusiaren ordezkotza egitea hau ez dagoenean eta eman dakizkiokeen guztiak bere Alorreko aldaketa-ihardunei dagozkienetan.

*6. atala.*– Organu Aldaketen Koordinakuntzarako Taldeko Ospitale Barruko Koordinatzaileek burutu beharreko egitekoak:

a) Bere zentruko kenketa-aldaketarako ekipoen egituraketan zuzen parte hartzea eta Zentruko Zuzendaritzarekin elkarlana egitea horiek antolatzen.

b) Osasunketa alorrekoak diren profesionalak eta ezprofesionalak, emanketak egin ditzaten bultzatzea.

c) Aldaketa programa berriak zentruetan jartzeko zuzeneko elkarlana egitea.

d) Kenketa eta aldaketa ihardunak bere zentruan indartzea.

e) Emanketa egiteko zain daudenen zerrendak eta gaisoen erregistroak beren zentruetan mantentzeko eta gaurkotzeko zuzeneko elkarlana egitea.

f) Agiango emaïleen eta benetako emaileen erregistroa sustatzea, Aldaketetarako Ospitale barruko Komitearekin eta Mortalitate Komitearekin elkarlana eginez.

g) Ospitale barruko logistika operatiboaren garapena eta kontrola egitea, bere zentruko kenketa-aldaketa ihardun bakoitzean.

h) Logistika intrakomunitarioak (Ospitale artekoa) laguntzea.

INDARGABETZE XEDAPENA

Lan, Osasunketa eta Gizarte Segurantza Sailburuaren Organuen Kenketa eta Aldaketa Zerbitzuak antolatzeari buruzko 1986ko abuztuaren 4eko Agindua indargabetu egiten da eta bai honen kontrakoak izan daitezkeen maila berdineko edo beheragoko beste xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Osakidetzari esku ematen zaio Agindu hau betetzeko beharrezkoak diren Artezbideak eman ditzan.

*Bigarrena.*– Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 1992ko martxoak 10.

Osasun Sailburua,
J. IGNACIO AZKUNA URRETA.

i) Organizar la logística operativa en cada actuación de su Area, sea intra o interhospitalaria.

j) Suplir al Coordinador General en su ausencia y cuantas le sean encomendadas en relación con la actividad de trasplante en su Area.

*Artículo 6.*– Las funciones a desarrollar por los Coordinadores Intrahospitalarios del Equipo de Coordinación de Trasplantes serán las siguientes:

a) Participación directa en la estructuración de los equipos de extracción-trasplante de su centro, así como colaborar con la Dirección del Centro en su organización.

b) Motivación a los profesionales sanitarios y no sanitarios en el área de promoción de la donación.

c) Colaboración directa en la implantación de nuevos programas de trasplante en sus centros.

d) Potenciación de las actividades de extracción y trasplante en su centro.

e) Colaboración directa en el mantenimiento y actualización de las listas de espera y registros de pacientes en sus centros.

f) Promoción del registro de donante potencial/donante real en colaboración con el Comité Intrahospitalario de trasplante y la Comisión de Mortalidad del Centro.

g) Desarrollo y control de la logística operativa intrahospitalaria en cada actuación de extracción-trasplante de su centro.

h) Apoyo en la logística intracomunitaria (Interhospitalaria).

DISPOSICION DEROGATORIA

Se deroga la Orden de 4 de agosto de 1986, del Consejero de Trabajo, Sanidad y Seguridad Social, sobre ordenación de los Servicios de Extracción y Trasplante de Organos, así como cuantas otras disposiciones de igual o inferior rango se opongan a la presente.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta a la Dirección General del Servicio Vasco de Salud/Osakidetza para la adopción de cuantas Instrucciones sean necesarias para la aplicación de la presente Orden.

*Segunda.*– La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de marzo de 1992.

El Consejero de Sanidad,
J. IGNACIO AZKUNA URRETA.